

# GIPUZKOAKO ESKULANGINTZAREN ERREGISTRO OROKORRA

## Laugarren atala: Eskulangintzako maisutzaren errolda

Urtea: **2024** | Ekonomia Sustapena

### LEHENENGO ATALEAN INSKRIBATZEKO BALDINTZAK:

- a.– Kasuan kasuko lanbideko jardueran, partaidetza pertsonala eta zuzena izatea.
- b.– Eskulangintzako enpresa baten zuzendaritzan eta jardueran bertan eginkizunak bete izana, 10 urtez gutxienez.
- c.– Eskulangileztat hartzeko, dekretu honen II. kapituluan ezarritako baldintzak betetzea.
- d.– Izendapen hori lortzeko nahikoa merezimendu izatea. Meritu horiek honako hauek izan daitezke:
  - a) Ibilbide profesionalean egindako lana.
  - b) Bizitza osoko ikaskuntza prozesuan eskuratutako kompetentzia profesionalak.
  - c) Ikastunen prestakuntzarekin loturiko jarduerak.
  - d) Zer eragin izan duen bere ofizioa indartzean.
  - e) Desagertzeko arriskuan dagoen lanbide batean aritzea edo desagertutako eskulangintza jarduera bat berreskuratzea.
  - f) Beste edozein merezimendu.

### ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO PROZEDURA:

Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorrean sartu nahi duten pertsonak bitarteko elektronikoen bidez izan behar dituzte harremanak.

Izapide desberdinak aurkezteko eta egiteko, interesdunek, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako identifikazio sistemak eta sinadura elektronikoa erabili ahal izango dituzte. [Egoitza elektronikoa](#) dago horien zerrenda.

Inskribatzeko eskaera inprimaki normalizatuen arabera egingo da. Inprimaki horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean eskuratu eta bete ahal izango dira:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/gipuzkoako-eskulangintzaren-erregistro-orokorra>

Eskulangintza enpresen kasuan, izena emateko eskabideari dagokion dokumentazioa jaso ondoren eta erregistroan inskribatzeko eskaera ebatzi aurretik, eskulangintza entitatearen egoitza bisitatuko da, prozesuen eta haiek egindako eskulangintza produktuen egokitasuna egiaztatzeko.

### AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

1. Horretarako prestatutako formularioak, behar bezala beteta.
2. Itularraren espedientearen merezimendu gisa jasota gera dadin, aurkezten diren eskariak honako alderdi hauei buruzko informazioa izan behar dute nahitaez:



- a) Ibilbide profesionalean egindako lana.
- b) Titulazio akademikoak eta profesionalak.
- c) Egindako prestakuntza ikastaroak.
- d) Ikastunen prestakuntzarekin zerikusia duten jarduerak.
- e) Beste edozein merezimendu.

#### **BETE BEHAR DIREN EPEAK:**

**Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko apirilaren 24a.**

**Eskabideen amaiera–epea: 2024ko maiatzaren 23an, 13:00etan.**

#### **ARAUDI APLIKAGARRIA:**

**[4/2023 Foru Dekretua, apirilaren 4koa, Gipuzkoako Eskulangintza eta Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokorra arautzen dituena.](#)**

**[2024ko deialdia, Gipuzkoako Eskulangintzaren Erregistro Orokor berria inskribatzeko.](#)**

#### **ESKAERA EGITEKO URRATSAK:**

- Informazioa eta dokumentuak → <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/gipuzkoako-eskulangintzaren-erregistro-orokorra>

Artisautza Erregistroko izapideak kudeatzeko aplikazioa → [Erregistro elektronikoa](#)

#### **EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU:**

#### **EKONOMIA SUSTAPENENKO zerbitzua**

Telefonoak:

- Kudeaketa Teknikoa: 943-112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943-112218

Emaila: [sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus](mailto:sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus)